BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1583

AGINDUA, 2012ko martxoaren 2koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Leioako (Bizkaia) «Leioa» Musika Kontserbatorio Profesionalari musika-espezialitateak gehitzeko baimena emateko dena.

Leioako (Bizkaia) «Leioa» Musika Kontserbatorio Profesionalak aurkeztu duen eskabidea aztertu da, non baimena eskatzen baita musika-espezialitateak gehitzeko.

Espediente hori Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek hari buruzko txostena eman dute.

Kontuan hartuta 303/2010 Errege Dekretua, martxoaren 15ekoa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako irakaskuntza artistikoak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko betekizunak finkatzen dituena (2010eko apirilaren 9ko BOE),

Eta indarrean dauden arauak ikusita, eta arauz eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla kontuan hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– 2012-2013 ikasturtetik aurrera Kantua espezialitatea emateko baimena ematen zaio ondoren zehazten den ikastetxeari:

Kode zenbakia: 48011706.

Izen espezifikoa: «Leioa».

Titularra: Leioako Udala – Soinu-Atadia Udal Fundazio Publikoa.

Helbidea: Iparraguirre etorbidea 70.

Udalerria: Leioa.

Lurralde historikoa: Bizkaia.

Ikastetxeak aurrerantzean honako espezialitate hauek emango ditu: pianoa, flauta, flautina, biolina, biola, gitarra, klarinetea, biolontxeloa, tronpeta, saxofoia, oboea, akordeoia, kontrabaxua, txistua, fagota, tronpa, bonbardinoa, tuba, tronboia, perkusioa eta kantua.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 2a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.